

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2426

HUTS-ZUZENKETA, honako ebazpen honena: 1799/2022 Ebazpena, azaroaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen diren estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri espezifikoak Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Goi Mailako Tituluduna kategorian (Antolakuntzako Goi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala), Antolakuntzako Goi Mailako Teknikari lanpostuetarako, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Teknikari eginkizunak betetzeko ezagutza espezifikoak dituzten lanpostuetarako eta itzultzaile-interprete eginkizunak betetzeko ezagutza espezifikoak dituzten lanpostuetarako, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Hutsak atzeman dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1799/2022 Ebazpenaren VI. eranskinean (Itzultzaile-interpreteta); Ebazpen horren bidez onartzen dira estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri espezifikoak Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Goi Mailako Tituluduna kategorian (Antolakuntzako Goi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala), Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Teknikari eginkizunak betetzeko ezagutza espezifikoak dituzten lanpostuetarako eta itzultzaile-interprete eginkizunak betetzeko ezagutza espezifikoak dituzten lanpostuetarako, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako. Ebazpen hori 2022ko abenduaren 27ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 246. zenbakian. Hona hemen zuzenketa:

2022/5623 (27/31) orrian,

honakoa esaten den lekuan:

«7.– 55/2003 Legea, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuarena: VI. kapitulua: Lanpostuak hornitzea, hautaketa eta barne-sustapena. VII. kapitulua: Langileen mugikortasuna. VIII. kapitulua: Karrera profesionala. IX. kapitulua: Estatutupeko langileen egoerak.»

Honakoa esan behar du:

«7.– 55/2003 Legea, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuarena: VI. kapitulua: Lanpostuak hornitzea, hautaketa eta barne-sustapena. VII. kapitulua: Langileen mugikortasuna. VIII. kapitulua: Karrera profesionala. XI. kapitulua: Estatutupeko langileen egoerak.»